Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko otsailaren 13a, asteazkena — 30 — Miércoles, a 13 de febrero de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak, 2019ko urtarrilaren 31an eginiko bileran, besteak beste, onartu du, gehiengoz, «Poltsa konpostagarrien erabileraren sustapenerako 2019-Kanpaina»n parte hartzeko eta horri atxikitzeko Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako udalerrietako merkataritza- eta zerbitzuetako establezimenduei zuzendutako diru-laguntzen deialdia.

*1. Xedea.*

1.1. Deialdi honen helburua da Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduei diru-laguntzak ematea, lehiaketa erregimenean, 2019an eta 2020an poltsa konpostagarriak banatzeko zerbitzua eskain dezaten.

Kanpainaren helburua da hondakin organikoen balorizazioa, banaketa bereizia eta birziklatzea sustatzea, udalerri horietako herritar guztientzat hurbilagokoak eta erabilerrazagoak diren entrega-guneak sortuz.

Zehazki: diru-laguntza lerro honen onuradunak 11 izango dira guztira:

— 4 establezimendu Azkoitian.

— 5 establezimendu Azpeitian.

— 2 establezimendu Zestoan.

Establezimendu onuradunak auzo desberdinetan egongo dira.

Ostalaritzako establezimenduak ezin izango dira onuradun izan (Zestoan izan ezik).

1.2. Diruz lagunduko den jarduera da establezimendu horien barruan jendearentzako arreta-ordutegian poltsa konpostagarriak banatzea (2 biribilki).

1.3. Poltsak doan banatuko dira, ezin izango da saldu.

1.4. Jarduera-epea bi urtekoa (2) izango da Mankomunitateak onuradunari poltsak eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

*2. Baldintzak.*

Deialdi honetako diru-laguntzak lortu ditzakete baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek:

a) Jarduera Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako merkataritza- eta zerbitzu-establezimendu iraunkorretan egitea.

b) Jendearentzako arreta eskaintzea goizez eta arratsaldez.

c) Azken urtean benetan egotea eta jarduera izatea udalerri horietan.

d) Udal-lizentzia izatea edo jarduera-aurreko jakinarazpena aurkeztu izana ziurtatzea eta jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta izatea.

## MANCOMUNIDAD DEL UROLA MEDIO

*Anuncio*

La Asamblea General de la Mancomunidad de Urola Medio, en sesión celebrada el día 31 de enero 2019, ha aprobado, entre otros, por mayoría, efectuar convocatoria de subvención dirigida a los establecimientos comerciales y de servicios de los municipios de Azkoitia, Azpeitia y Zestoa para participar y adherirse a la «Campaña- 2019 para la Promoción de Uso de Bolsas Compostables».

*1. Objeto.*

1.1. La presente convocatoria tiene por objeto el otorgamiento, en régimen de concurrencia competitiva, de subvenciones a establecimientos comerciales y de servicios de los municipios de Azkoitia, Azpeitia y Zestoa para realizar en el año 2019 y 2020 la prestación del servicio de reparto de bolsas compostables.

La finalidad de la campaña es impulsar la recogida selectiva, el reciclaje y valorización de residuos orgánicos, creando puntos de entrega más cercanos y accesibles para todos/as los/as ciudadanos/as de dichos municipios.

En concreto: el número de beneficiarios de esta línea subvencional será 11:

— 4 establecimientos en Azkoitia.

— 5 establecimientos en Azpeitia.

— 2 establecimientos en Zestoa.

Los establecimientos beneficiarios estarán emplazados en barrios diferentes.

No podrán ser beneficiarios los establecimientos hosteleros (salvo en el caso del municipio de Zestoa).

1.2. La actividad subvencionable consiste en el reparto o distribución de bolsas compostables (2 rollos) en el interior de dichos establecimientos en horario de atención al público.

1.3. Las bolsas se entregarán de forma gratuita, sin contraprestación económica alguna.

1.4. El plazo de la actividad es de dos (2) años, a contar desde el día siguiente al de entrega de las bolsas al/la beneficiario/a por la Mancomunidad.

*2. Requisitos.*

Podrán acceder a las subvenciones, objeto de esta convocatoria las personas físicas o jurídicas que reúnan los siguientes requisitos:

a) Ejercitar actividad en establecimientos comerciales y de servicios permanentes en los municipios de Azkoitia, Azpeitia y Zestoa.

b) Disponer de horario abierto al público de mañana y tarde.

c) Tener presencia y actividad reales en dichos municipios en el último año.

d) Poseer licencia municipal o acreditar la presentación de comunicación previa de actividad y estar dado de alta en el impuesto de actividades económicas.

EK\CV GAO-I-2019-00654

e) Lokala irisgarri izatea. Baldintza hau betetzen ez duen eskatzailerik ez badago, prozedura gainerakoekin jarraitu ahal izango da.

f) Eskaintza bateratuetan, establezimenduek puntu honetako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

*3. Eskabideak.*

Diru-laguntza honetara aurkezten diren pertsonek edo erakundeek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eredu normalizatuarekin bat datorren inprimaki orokorra (1. eranskina).

b) Zinpeko adierazpena: ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penalik edo administratiborik, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere.

(Adierazpen hau aurreko ataleko eskaera-eredu arautuan jasota dago, 1. eranskina).

c) Zinpeko adierazpena eta baimena ematea Urola Erdiko Mankomunitateari: egunean dituela zerga-betebeharrak (Ogasunarekikoak eta Udalaren diru-bilketakoak) eta Gizarte Segurantzarekikoak bilatzeko.

d) Zinpeko adierazpena eta baimena ematea Urola Erdiko Mankomunitateari: udal-lizentzia baduela edo jardueraren aurretiazko jakinarazpenaren aurkeztu duela; edo Mankomunitateari baimena ematea diola horiek ofizioz egiazta ditzan, baita azken urtean udalerrietan benetan presentzia eta jarduera izan dituztela egiaztatzeko ere.

Emakida-ebazpena egiten denean onuradunak agiri hauek guztiak aurkeztu beharko ditu hamar laneguneko epean, edota baimena eman Urola Erdiko Mankomunitateari dagokion administrazioan informazioa eskuratzeko:

— Jardueraren udal lizentziaren edo aurretiazko jakinarazpenaren kopia.

— Ekonomia Jardueren Zergaren altan egoteraren agiriaren kopia.

— Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.

— Ogasun eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituelako ziurtagiriak.

Agiriak ez badira aurkezten edo epez kanpo aurkezten badira, emakida ez zaio emango, eta lehiaketan bigarren puntuazio altuena duenari ebazpen berria egingo zaio.

*4. Prozedura.*

Deialdiaren publizitatea egingo da deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Mankomunitatearen web orrian (www.urolaerdia.eus) argitaratuta.

Emakida-prozedura lehiaketa-erregimenean egingo da, eta aurkeztutako eskaerak alderatuta, haien arteko lehentasuna 5. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideen arabera ezartzeko.

Eskabideak Urola Erdiko Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Enparantza nagusia 11-1.2, 20730 Azpeitia; https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=599&hizkuntza=EU), hilabeteko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Eskabideak ez badira behar bezala beteta aurkezten edo ez badira eskatutako nahitaezko agiri guztiekin aurkezten, interesdunari/interesdunei hamar egun balioduneko epea emango zaio/zaie hutsak zuzentzeko edo falta zaizkion/zaizkien agiriak aurkezteko.

e) Ser local accesible. En el caso de que no exista ningún solicitante que cumpla con esa condición, podrá continuar el procedimiento con los restantes.

f) En las peticiones conjuntas, todos los establecimientos deberán cumplir con los requisitos de este punto.

*3. Solicitudes.*

Las personas o entidades que concurran a esta subvención tendrán que presentar los siguientes documentos:

a) Impreso general conforme a modelo normalizado (anexo 1).

b) Declaración de no encontrarse sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursas en prohibición legal que las inhabilite para ello,

(Esta declaración se halla contenida en el modelo normalizado de solicitud del apartado anterior, anexo 1).

c) Declaración responsable de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (Hacienda y Recaudación municipal) y frente a la Seguridad Social.

d) Declaracion responsable de tener en vigor la licencia municipal o de la de comunicación previa de actividad, y autorizar a la Mancomunidad efectuar las comprobaciones oportunas de oficio en relación a dichas autorizaciones y en relación a su presencia y actividad reales en los municipios en el ultimo año.

Al realizar el decreto de concesión, el beneficiario deberá presentar los siguientes documentos en un plazo de diez días, o dar permiso para que la Mancomunidad Urola Erdia compruebe en las administraciones pertinentes dichos documentos:

— Copia de la licencia municipal o de la comunicación previa.

— Copia de estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.

— Copia de Codigo de Identificación Fiscal.

— Certificado de estar al corriente de pagos con hacienda y con la Seguridad Social.

Si los documentos no se presentan o se presentan fuera de plazo, no se le concederá la subvención, y se realizará un nuevo decreto otorgándoselo al segundo con mayor puntuación.

*4. Procedimiento.*

La publicidad de la convocatoria se efectuará publicando el anuncio de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web de la Mancomunidad (www.urolaerdia.eus).

El procedimiento de concesión será en régimen de concurrencia competitiva y se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración establecidos en el artículo 5.

Las solicitudes se presentarán en el Registro General de la Mancomunidad de Urola Erdia (Enparantza nagusia 11-1.2, 20730 Azpeitia; https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=599&hizkuntza=CA) en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Si la solicitud de subvención no viniese cumplimentada en todos sus términos o no fuera acompañada de la documentación preceptiva, se requerirá a los/as interesados/as para que en un plazo de diez días hábles subsanen la falta o acompañen los documentos preceptivos.

EK\CV GAO-I-2019-00654

*5. Eskabideak balioesteko modua.*

Eskaerak sailkatuko dira merkataritza eta zerbitzuen kokapena aintzat hartuta; horretarako, gune hauek bereiziko dira:

1. Azkoitiko guneak.

— Altzibar.

— Erdialdea.

— Julio Urquijo.

— Trenbidearen Zumardia.

2. Azpeitiko guneak.

— Sanjuandegi.

— Erdialdea.

— Alde Zaharra+ Damaso.

— Garmendipe.

— Urrestilla.

3. Zestoako guneak.

— Erdialdea.

— Arroa Behea.

Gune bakoitzeko erdigunea hau izango da:

1. Azkoitia.

— Anaitasuna Plaza (43°10’32.0”N 2°19’06.4”W), Altzibarren.

— Jesusen Bihotz Agurgarria Plaza (43°10’41.5”N 2°18’41.6”W), erdigunean.

— Julio Urkixo hiribidea 10 (43°10’40.0”N 2°18’29.7”W), Julio Urquijo kalean.

— Trenbidearen Zumardia 17 (43°10’33.3”N 2°18’27.1”W), Trenbidearen Zumardian.

2. Azpeitia.

— Salbe 15. (43°10’42.9”N 2°16’15.8”W), Sanjuandegin.

— Jose Artetxe 7. (43°10’52.9”N 2°16’04.2”W), erdialdean.

— Plaza Perez Arregi (43°11’08.7”N 2°15’49.2”W), Alde zaharra + Damason.

— Artzubia hiribidea 23. (43°10’51.7”N 2°15’48.2”W), Garmendipen.

— Antxieta plaza (43°09’26.7”N 2°14’42.7”W), Urrestillan.

3. Zestoa.

— Gurutze kalea 9 (43°14’23.4”N 2°15’27.1”W), erdialdean.

— San Isidro kalea 16 (43°16’38.5”N 2°16’12.4”W), Arroa Behean.

*6. Balorazio-irizpideak.*

Eskaera bateratuak hobetsiko dira: establezimendu ugari batzen dituen eskaerak gailenduko dira irizpide guztiei.

Horrelakorik ez balego, edo lehian egongo balira, hauek dira irizpideak.

1. Poltsa konpostagarrien kaxen kopurua modu egokian biltzeko gaitasuna (gutxienez 5, kaxa bakoitzaren neurriak 40x30x30 zmkoak dira).

— 5-10 tarteko kaxak: 2 puntu.

— 11-15 tarteko kaxak: 5 puntu.

— 16 kaxa baino gehiago: 8 puntu.

*5. Forma de valoración de las solicitudes.*

Se clasificarán las solicitudes tomando en cuenta la ubicación de los comercios y servicios; a tal efecto, se distinguen las siguientes zonas:

1. Zonas de Azkoitia.

— Altzibar.

— Centro.

— Julio Urquijo.

— Trenbidearen Zumardia.

2. Zonas de Azpeitia.

— Sanjuandegi.

— Centro.

— Parte vieja + Damaso.

— Garmendipe.

— Urrestilla.

3. Zonas de Zestoa.

— Centro.

— Arroa Behea.

Dentro de cada zona se considera el centro:

1. Azkoitia.

— Anaitasuna Plaza (43°10’32.0”N 2°19’06.4”W) en Altzibar.

— Jesusen Bihotz Agurgarria Plaza (43°10’41.5”N 2°18’41.6”W) en Centro.

— Julio Urkixo hiribidea 10 (43°10’40.0”N 2°18’29.7”W) en Julio Urquijo.

— Trenbidearen Zumardia 17 (43°10’33.3”N 2°18’27.1”W) en Trenbidearen Zumardia.

2. Azpeitia.

— Salbe 15 (43°10’42.9”N 2°16’15.8”W) en Sanjuandegi.

— Jose Artetxe 7 (43°10’52.9”N 2°16’04.2”W), Centro.

— Plaza Perez Arregi (43°11’08.7”N 2°15’49.2”W), en Parte vieja + Damaso.

— Artzubia hiribidea 23 (43°10’51.7”N 2°15’48.2”W), Garmendipe.

— Antxieta plaza (43°09’26.7”N 2°14’42.7”W), Urrestilla.

3. Zestoa.

— Gurutze kalea 9 (43°14’23.4”N 2°15’27.1”W), Centro.

— San Isidro kalea 16 (43°16’38.5”N 2°16’12.4”W), Arroa Behea.

*6. Criterios de valoración.*

Tendrán preferencia sobre todos los criterios de valoración las peticiones conjuntas, es decir, preferentemente se elegirán las peticiones de asociaciones que aúnan más de un establecimiento.

En caso de que no haya peticiones conjuntas, o hubiera concurrencia entre ellas, así se valorarán:

1. Disposición para almacenar en forma adecuada las cajas de bolsas compostables (mínimo 5, siendo las dimensiones de cada caja 40x30x30 cm).

— Entre 5 y 10 cajas: 2 puntos.

— Entre 11-15 cajas: 5 puntos.

— Más de 16 cajas: 8 puntos.

EK\CV GAO-I-2019-00654

2. Establezimenduaren azalera.

50 $m^2$ arte, 2 puntu.

50 $m^2$ baino gehiago: 4 puntu.

3. Erdigunearekiko distantzia.

Kokapena balioetsiko da establezimenduaren eta erdigune bakoitzean dagoen distantzia kontuan hartuta, bi puntuen arteko lerro zuzeneko distantzia, betiere.

— 30 m-ra arteko distantzia: 8 puntu.

— 31 eta 60 m-ra arte: 6 puntu.

— 61 eta 100 m-ra arteko distantzia: 4 puntu.

— 100 m baino handiagoko distantzia: 2 puntu.

Gehienez 20 puntu lor daitezke, eta gutxienez 8 puntu lortu behar dira onuraduna izateko.

Berdinketarik izanez gero, lehentasuna emango zaio puntuazorik altuena lortu duen eskaerari, 6.1 puntuko irizpideak kontuan hartuta. Hala ere, 6.1 puntuko balorazioan berdinketa izanez gero, lehentasuna emango zaio 6.2. puntuko irizpidearen arabera $m^2$ gehien duen establezimenduari. Hori guztiaren ondoren balorazioan berdinketa izanez gero, lehentasuna emango zaio 6.3. irizpidearen arabera erdigunetik gertuen dagoenari m-etan kontatuta.

*7. Instrukzioa, txostena eta behin-behineko proposamena.*

Prozeduraren instrukzioa Urola Erdiko Mankomunitatearen Idazkaritza Kontu-hartzailetzako Departamenduari dagokio.

Balorazio Batzordeak hiru udalerrietako (Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa) ordezkari politiko bana izango du, eta kide horiek Ingurugiro Etxea Fundazioaren zuzendariaren laguntza izango dute txostena idazteko (Urola Erdiko Mankomunitatearen Ingurumen Saileko arduraduna da, lankidetza-hitzarmenaren arabera); zehazki, zuzendariak hitz egiteko aukera izango du, baina ez du boto-eskubiderik izango.

Balorazio Batzordeak aurkeztu diren eskaeren balorazio-txostena eta behin-behineko proposamena egingo ditu.

Eskatzaileei behin-behineko proposamenaren berri emango zaie, eta 10 egun baliodunеko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

*8. Ebazpena.*

8.1. Prozedura ebazteko erakunde eskuduna Urola Erdiko Mankomunitatearen lehendakaria da.

8.2. Ebazpenak egiteko eta argitaratzeko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Deialdi hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Epe hori igarotzen bada eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazten, eskatzaileek beren diru-laguntza eskaerak ezetsitzat jo beharko dituzte.

*9. Diru-laguntzaren zenbatekoa.*

Emandako zenbatekoa eskatutako zenbatekoaren % 100ekoa izango da.

Gehienez 1.000 € eska daitezke erakundeko, hala banaka nola taldean.

*10. Diru-laguntza ordaintzea.*

Erakunde eskudunak diru-laguntzaren emakida onartu ondoren, erakunde onuradunei esleitutako zenbatekoaren % 60 ordainduko zaie.

Emandako diru-laguntzaren gainerako % 40aren ordainketa jarduera burutu eta justifikatu ondoren egingo da.

2. Superficie del establecimiento.

Hasta 50 $m^2$: 2 puntos.

Más de 50 $m^2$: 4 puntos.

3. Distancia al centro zonal.

Se puntuara la ubicación teniendo en cuenta la distancia existente entre el establecimiento y el centro de cada zona, se medirá la distancia en linea recta.

— Hasta 30 metros de distancia: 8 puntos.

— Entre 31 y 60 metros: 6 puntos.

— Entre 61 y 100 metros: 4 puntos.

— Más de 100 metros de distancia: 2 puntos.

La puntuación máxima es 20 puntos. Debe obtenerse un mínimo de 8 puntos para ser beneficiario.

En caso de empate, se dará prioridad a la solicitud que haya obtenido la mayor puntuación según los criterios del punto 6.1. En caso de empate en la puntuación del punto 6.1, se dará prioridad a la solicitud que tenga más $m^2$ de área en el punto 6.2. En caso de empate en la puntuación del punto 2, se dará prioridad a la solicitud que esté más cerca en metros según los criterios en el punto 6.3.

*7. Instrucción, informe y propuesta provisional.*

La instrucción del procedimiento corresponderá al Departamento de Secretaría Intervención de la Mancomunidad de Urola Medio.

La Comisión de Valoración estará compuesta por un representante político de cada uno de los tres municipios (Azkoitia, Azpeitia y Zestoa) y serán asistidos en la redacción del informe por el Director de la Fundación Ingurugiro etxea fundazioa (responsable del Área de Medio Ambiente de la Mancomunidad de Urola Erdia, en virtud de convenio de colaboración), el cual dispondrá de voz pero no de voto.

La Comisión de Valoración emitirá informe de valoración de las solicitudes presentadas y propuesta provisional.

La propuesta provisional será notificada a los/as solicitantes confiriéndoles plazo de 10 días hábiles para formular alegaciones.

*8. Resolución.*

8.1. El órgano competente para resolver el procedimiento es el Presidente de la Mancomunidad de Urola Erdia.

8.2. El plazo máximo para dictar y publicar o notificar las resoluciones será de seis meses. A contar desde la ublicación de la presente convocatoria.

Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución expresa, las personas solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes de subvención.

*9. Cuantía de la subvención.*

La cantidad concedida será el 100 % de la solicitada.

La cuantía máxima solicitable será de 1.000 € por entidad, ya sea de forma individual o comunitaria.

*10. Abono de la subvención.*

Una vez aprobada la concesión de la subvención por el órgano competente, se hará efectivo el 60 % de la cantidad concedida a las entidades beneficiarias.

El segundo pago del resto (40 %) de la subvención concedida, se realizará una vez finalizada y justificada la realización de la actividad.

EK\CV GAO-I-2019-00654

*11. Justifikazioa.*

Onuradunak bete egin beharko ditu Urola Erdiko Mankomunitateak emango dizkion liburuxkak, bertan idatzi beharko ditu poltsak banatzen dizkien herritarren datu hauek: poltsak eman zaizkien data eta herritarraren helbidea.

Urola Erdiko Mankomunitateak zerbitzua nola eskaintzen den xehekiago ebaluatu ahalko du, eta diru-laguntza jasoko duen erakundeak zerbitzua eskaintzen den tokira sartzen uzteko eta eskatzen zaizkion agiriak eta informazioa emateko konpromisoa hartzen du.

Betebeharrak urratuz gero, diru-laguntza berrikusi egingo da zehaztutako prozeduraren arabera.

*12. Onuradunaren betebeharrak.*

1. Poltsa konpostagarriak entregatu baino lehen (2 biribilki), onuradunak Urola Erdiko Mankomunitateak entregatuko dion erregistro-liburu ofizialean datu hauek jaso beharko ditu.

— Eskaeraren eguna, hilabetea eta urtea.

— Eskatzailearen helbidea.

2. Pertsona edo erakunde onuradunak konfidentzialtasuna errespetatzeko betebeharra du, hau da, eskuratzen dituen datu pertsonalak ezin izango ditu erabili diru-laguntza honen araudian aurreikusitakoa ez den beste helburu baterako (erregistro-liburuan jasotzea).

Erakunde onuradunak, datuak tratatzeko arduraduna denez, datuak Urola Erdiko Mankomunitatearen ordez tratatu behar ditu, besterik ez, hura izanik fitxategiaren eta datuen tratamenduaren arduraduna, eta Mankomunitateak adierazitakoa betez egingo du, datuak ez ditu aplikatuko edo erabiliko diru-laguntzan jasotakoa ez den beste edozein helburutarako, eta ez dizkio beste inori jakinaraziko, ezta datu horiek gordetzeko ere.

Pertsona edo erakunde onuradunak (datuak tratatzearen arduraduna) datuak beste helburu baterako erabiltzen baditu, jakinarazi egiten baditu edo diru-laguntzaren araudian ezarritakoaren kontra erabiltzen baditu, erabileraren erantzuletzat joko da, eta egin dituen arau-hausteengatik erantzun beharko du.

Diru-laguntzari dagokion zerbitzua eskaini ostean, datu pertsonalak ezabatu egin beharko dira edo tratamenduaren erantzuleari edo erantzule horrek izendatutako arduradunari itzuli beharko zaizkio, eta beste horrenbeste egingo da tratamenduan erabilitako era bateko edo besteko datu pertsonalen bat duen edozein euskarri edo dokumenturekin ere.

Pertsona edo erakunde onuradunak Mankomunitateari itzuliko dio erregistro-liburua, diru-laguntzaren xede den jarduera bukatu ondoren.

Pertsona edo erakunde onuradunak ezin izango ditu datuak jaso erregistro-liburu ofiziala ez diren beste euskarri batzuetan edo euskarri osagarrietan.

3. Pertsona edo erakunde onuradunak hilero jasotako datuak entregatuko ditu.

4. Pertsona edo erakunde onuradunak Urola Erdiko Mankomunitatearen berariazko baimena lortu beharko du zerbitzua eskaintzerakoan aldaketak egiteko.

5. Pertsona edo erakunde onuradunak Urola Erdiko Mankomunitateak entregatzen dion logotipoa edo bereizgarria atean edo ikus daitekeen toki batean jarriko du.

6. Diru-laguntza jaso duen pertsonak edo erakundeak zerbitzua eskaintzen den tokira sartzen utziko du eta Urola Erdiko Mankomunitateak eskatutako informazioa eta dokumentazioa emango ditu. Besteak beste, uneoro emango du poltsa konpostagarrien stockaren berri, hornidura behar bezala egin ahal izatea bermatzeko.

*11. Justificación.*

El/la beneficiario/a deberá cumplimantar las libretas que le proporcionará la Mancomunidad de Urola Erdia. En dichas libretas deberá anotar la siguiente información: dirección del usuario que recoge las bolsas, fecha de la entrega de bolsas.

La Mancomunidad de Urola Erdia queda facultada para hacer una evaluación más detallada de la prestación del servicio y la entidad subvencionada se compromete a facilitar el acceso al lugar donde se se efectúa la prestación y a proporcionar la información y documentación que le fuere requerida.

El incumplimiento de las obligaciones supondrá la revisión de la subvención de acuerdo al procedimiento establecido.

*12. Obligaciones del/la beneficiario/a.*

1. Antes de efectuar la entrega de las bolsas compostables (2 rollos), el/la beneficiario/a deberá anotar en el libro-registro oficial que le será entregado por la Mancomunidad de Urola Erdia los siguientes datos.

— Día, mes y año de la solicitud.

— Dirección del/la solicitante.

2. La persona o entidad beneficiaria tiene deber de confidencialidad, esto es, no podrá utilizar los datos personales obtenidos para otra finalidad distinta de la prevista (anotación en el libro registro) en la norma reguladora de la presente subvención.

La entidad beneficiaria, en su condición de encargado del tratamiento de los datos, debe limitarse a tratar los datos por cuenta de la Mancomunidad de Urola Erdia, responsable del fichero y del tratamiento de los mismos y de acuerdo y con respeto a sus instrucciones, no los aplicará o utilizará con fin distinto al que figure en la subvención, ni los comunicará, ni siquiera para su conservación, a otras personas.

En el caso de que la persona o entidad beneficiaria (encargado del tratamiento) destine los datos a otra finalidad, los comunique o los utilice incumpliendo las estipulaciones de la normativa reguladora de la subvención, será considerado también responsable del tratamiento, respondiendo de las infracciones en que hubiera incurrido personalmente.

Una vez cumplida la prestación subvencionada, los datos de carácter personal deberán ser destruidos o devueltos al responsable del tratamiento o al encargado que éste hubiese designado, al igual que cualquier soporte o documentos en que conste algún dato de carácter personal objeto del tratamiento.

La persona o entidad beneficiaria devolverá a la Mancomunidad el libro registro una vez finalizada la actividad objeto de subvención.

La persona o entidad beneficiaria no podrá hacer constar los datos en soportes distintos o auxiliares del libro-registro oficial.

3. La persona o entidad beneficiaria entregará los datos obtenidos cada mes.

4. La persona o entidad beneficiaria deberá recabar el consentimiento expreso de la Mancomunidad de Urola Erdia para llevar a cabo cualquier cambio en la prestación del servicio.

5. La persona o entidad beneficiaria colocará el logo o distintivo que le entregue la Mancomunidad de Urola Erdia en la puerta o lugar visible.

6. La persona o entidad subvencionada facilitará el acceso al lugar donde se se efectúa la prestación y a proporcionar la información y documentación que le fuere requerida por la Mancomunidad de Urola Erdia. Entre otro, informará en todo momento sobre el stock de bolsas compostables a fin de garantizar el suministro en debidas condiciones.

EK\CV GAO-I-2019-00654

7. Diru-laguntza jaso duen pertsonak edo erakundeak diru-laguntza onartu beharko du. Diru-laguntza eman zaiola jakinarazteko adierazpena jaso eta 5 eguneko epean onuradunak diru-laguntzari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badio, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

8. Diru-laguntza jaso duen pertsonak edo erakundeak bete egin beharko ditu zorrotz Urola Erdiko Mankomunitateko ordenantza arautzaileak.

*13. Aurrekontu kreditua.*

Urola Erdiko Mankomunitateak 11.000 € bideratuko ditu deskribatu diren zerbitzuetara, 1.0000. 481. 162.10.01.2016 aurrekontu-aplikazioaren kargura.

Diru-laguntzak emateko proposamena prestatu ondoren ikusten bada soberakina dagoela, zenbateko horrek ez du areagotuko proposatutako diru-laguntzei erantzuteko aurreikusitako zenbatekoa.

Deialdi honetan jasotako diru-laguntzak xede bererako emandako beste edozeinekin bateragarriak izango dira, baldin eta diru-laguntza jasotzen duen zerbitzuak ez badu soberako finantzaketarik lortzen.

*14. Araudi gehigarria.*

Diru-laguntza deialdi honetan aurreikusi ez denerako, diru-laguntzen eta administrazioko prozedura erkidearen araudi orokorra aplikatuko da.

*15. Datuen babesa.*

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari eta Jabetza Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datu Pertsonalak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25ko 2/2004 Legeari jarraiki, deialdi honen izapideetan jasotako datu pertsonalak (partaideek datu horiek tratatzeko eta argitaratzeko baimena ematen dute) Urola Erdiko Mankomunitatearen fitxategian sartuko dira. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubideak Kontu-hartzailetza eta Idazkaritza Sailaren aurrean erabili ahalko dira, helbide honetara zuzenduz: Enparatza nagusia 11-1.2, 20730 Azpeitia.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonek Urola Erdiko Mankomunitateari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan egiaztatzeko aurkeztutako agiriak benetakoak direla.

*Lehenengo azken xedapena.*

Erabaki honek ondorioak ekarriko ditu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren eta biharamunetik aurrera.

Erabaki honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Erabaki honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezar dakioke Mankomunitatearen presidenteari; horretarako, hilabeteko epea egongo da, Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Auzitegian; horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, Erabakia aldizkari ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Azpeitia, 2019ko urtarrilaren 14a.—Aitor Bereziartua Larrañaga, Urola Erdiko Mankomunitateko lehendakaria.

(654)

7. La persona o entidad subvencionada deberá aceptar la subvención concedida. Si en el plazo de 5 días desde la recepción de la resolución por la que se notifica la concesión de la subvención la entidad beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

8. La persona o entidad subvencionada deberá cumplir con todas las ordenanzas reguladoras de la Mancomunidad Urola Erdia.

*13. Crédito presupuestario.*

El importe destinado por la Mancomunidad de Urola Erdia para subvencionar las prestaciones descritas es de 11.000 € con cargo a la aplicación presupuestaria 1.0000. 481. 162.10.01.2016.

En el caso de que, una vez elaborada la propuesta de concesión de las subvenciones correspondientes se prevea la existencia de remanente, éste no acrecerá el importe previsto para atender las subvenciones que se proponga otorgar.

Las subvenciones contempladas en la presente convocatoria serán compatibles con cualesquiera otras que pudieran ser concedidas para el mismo objeto, siempre que no exista sobrefinanciación de la actividad subvencionada.

*14. Normativa supletoria.*

En lo no previsto por las normas de esta convocatoria de subvención, resultarán aplicables las normativa general reguladora de las subvenciones y de procedimiento común administrativo.

*15. Protección de datos.*

De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluido en el fichero correspondiente de la Mancomunidad de Urola Erdia. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante el Departamento de Secretaría Intervención, dirigiéndose para ello a la siguiente dirección: calle Enparantza nagusia 11-1.2, 20730 Azpeitia.

Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria autorizan a la Mancomunidad de Urola Erdia a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.

*Disposición final primera.*

La presente Resolución surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrán los/las interesados/as interponer recurso potestativo de reposición ante el Presidente de la Mancomunidad, en el plazo de un mes a partir del siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Azpeitia, a 14 de enero del 2019.—El presidente de la Mancomunidad de Urola Erdia, Aitor Bereziartua Larrañaga.

(654)

EK\CV GAO-I-2019-00654

**1. Eranskina/Anexo 1**

**1. Eranskina/Anexo 1**

**Dirulaguntza eskatzeko orria**

**Solicitud de subvención**

**1. Eskatzailearen datuak /** ***Datos del/la solicitante:***

Izen-deiturak / *Nombre y apellidos*

NAN / *DNI*

IFK / *CIF*

Helbidea / *Dirección*

Herria / *Población*

PK / *CP*

Telefonoa / *Teléfono*

Posta elektronikoa / *Dirección electrónica*

**2. Banketxea (diru laguntza sartzeko) /** ***Entidad bancaria (para realizar el ingreso de la subvención)*****:**

Kontu korrontearen zk. / *Número de cuenta*

Banketxea: / *Entidad bancaria:*

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1.2 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

EK\CV GAO-I-2019-00654

UROLA ERDIKO
Zerbitzu Mankomunitatea
Mancomunidad de Servicios
DEL UROLA MEDIO

**3. Establezimenduaren datuak (eskari bateratuetan establezimendu guztiak izendatu)** ***Datos del establecimiento (nombrar todos los establecimientos en caso de peticiones conjuntas)*:**

Izena / *Nombre*

__________________________________________

__________________________________________

__________________________________________

Helbidea / *Dirección*

__________________________________________

__________________________________________

__________________________________________

**4. Eskaera balioesteko irizpideak /** ***Criterios de valoración de las peticiones.***

**1.** Poltsa konpostagarrien kaxen kopurua (gutxienez 5, kaxa bakoitzaren neurriak 40x30x30 zmkoak da) modu egokian biltzeko gaitasuna. / *Disposición para almacenar en forma adecuada las cajas de bolsas compostables (mínimo 5, siendo las dimensiones de cada caja 40x30x30 cm)*

5-10 tarteko kaxak / *Entre 5 y 10 cajas:* ☐
11-15 tarteko kaxak / *Entre 11-15 cajas* ☐
16 kaxa baino gehiago / *Más de 16 cajas* ☐

**2.** Establezimenduaren azalera / *Superficie del establecimiento*

50 m² arte / *Hasta 50 m²* ☐
50 m² baino gehiago / *Más de 50 m²* ☐

**3.** Erdigunearekiko distantzia / *Distancia del establecimiento al centro zonal*

30 mra arteko distantzia / *Hasta 30 metros de distancia* ☐
31 eta 60 mra arte / *Entre 31 y 60 metros* ☐
61 eta 100 mra arteko distantzia / *Entre 61 y 100 metros* ☐
100 m baino handiagoko distantzia / *Más de 100 metros de distancia* ☐

| **5. Eskatzailearen aitorpena** | **5. Declaración del/la solicitante** |
|---|---|
| 1 Poltsa konpostagarrien erabileraren sustapenerako | 1º He sido informado/a de la convocatoria de |

UROLA ERDIKO
Zerbitzu Mankomunitatea
Mancomunidad de Servicios
DEL UROLA MEDIO

| | |
|---|---|
| 2019-Kanpaina"-n parte hartzeko eta horri atxikitzeko Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako udalerrietako merkataritza- eta zerbitzuetako establezimenduei zuzendutako diru laguntzak, lehiaketan araubidean emateko deialdiaren berri izan dudala. | subvención, en régimen de concurrencia competitiva, dirigida a los establecimientos comerciales y de servicios de los municipios de Azkoitia, Azpeitia y Zestoa para participar y adherirse a la "Campaña- 2016 para la Promoción de Uso de Bolsas Compostables". |
| 2. Bete egiten ditut onuradun izateko legerian eta deialdi honetan ezarritako berariazko betekizun oro. Eskaeran adierazten ditudan datuak benetakoak dira. | 2º Cumplo todas y cada una de las condiciones específicas establecidas en esta convocatoria y en la regulación correspondiente para poder ser beneficiario/a. Los datos indicados en la solicitud son ciertos. |
| 3. Ez nau eragiten onuradun izateko aipatzen dituen debeku-zioetako bakar batek ere. | 3º No me encuentro afectado/a por ninguno de los motivos de prohibición para poder ser beneficiario/a. |
| 4. Egunean ditut zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak. | 4º Que me hallo al corriente de mis obligaciones fiscales y las referentes a la Seguridad Social. |
| *5.* Aurkezten ditudan agiriak, oinarrietan hala eskatuta:<br><br>- *NAN kopia*<br>- *Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.* | *5º* Documentación que presento, según lo indicado en las bases:<br>- *Copia del DNI*<br>- *Fotocopia del Código de Identificación Fiscal* |
| Esleipendun gisa proposatzen banaute, Urola Erdiko Mankomunitateari BAIMENA EMATEN DIOT Udal lizentzia izatea (dagokion udalean), Ekonomia Jardueraren alta emanda egotea (Foru Ogasuna), zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentuak aurkeztea.[BAI] [EZ] | En caso de ser propuesto como adjudicatario, AUTORIZA a la Mancomunidad Urola Erdia para consultar si el subvencionado tiene la pertinente licencia de apertura (Ayuntamiento correspondiente), está dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas (Hacienda Foral), si está al corriente de sus obligaciones fiscales (ante Hacienda Foral) y frente a la Seguridad Social, así como a obtener la información necesaria a tal efecto, en cuyo caso no resultará necesario acreditarlo documentalmente. [SII] [NO] |
| 6. Diru laguntza jasotzearekin batera, hartzen ditudan konpromisoak: | 6. Compromisos que acepto al recibir la subvención: |
| 1) Prestazioa garatzen ari dela gertatzen diren gorabehera guztiak Mankomunitateari jakinaraztea, gertatu bezain laster | 1) Informar inmediatamente a la Mancomunidad de todas las incidencias que surjan durante el desarrollo del servicio |
| 2) Mankomunitateak ezarritako betekizun guztiei eta bete beharreko arauei men egitea | 2) Cumplir todas las condiciones y normas establecidas por la Mancomunidad |

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1.2 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

UROLA ERDIKO
Zerbitzu Mankomunitatea
Mancomunidad de Servicios
DEL UROLA MEDIO

AZPEITIA, ______________________________

(Data eta sinadura /
Fecha y firma)

**UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARI J.RI**
**AL SR. PRESIDENTE DE LA MANCOMUNIDAD DE UROLA MEDIO**

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1.2 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

EK\CV GAO-I-2019-00654